



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



LIBURU  
TERRA  
GIAK



Elvas-ko liburutegia (Portugal)

## “Sarea ia-ia itzuli da pandemia aurreko normaltasunera”

Seigarren urtez idatzi dut sarrera hau eta denbora-tarte honetan era guztietako gertakizunak, batzuk oso larriak, beste batzuk pozgarriagoak, bizi izan ditugun arren, antzeko eredia jarraitu izan dut guztietan: aurreko urtean emandako berrikuntza deigarrienak aipatu, estatistiken daturik esanguratsuenak azpimarratu eta aurrera begira ditugun erronkak nabarmendu ditut. Horrela jokatu dut oraingoan ere.

Etxe barruan jazotako aldaketa garrantzitsu batekin hasiko naiz. Urte luzez Liburutegi Zerbitzuaren buru izan den Francisca Pulgar gure lankidea jubilatutako abenduaren amaieran. Bera izan zen hainbat lankideen babesarekin, Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearen sortzailea eta arduradun nagusia. Besteak beste, bere lanak eta bere jakinduriak egin dute posible egun dugun eredia eraikitzea eta birmoldatzea. Eskerrik asko, Francisca, erakutsi duzun konpromisoagatik. Mikel Etxeberria izango da 2023tik aurrera zerbitzuaren arduradun berria.

2022. urtean izandako beste aldaketa aipagarria Bilgunearen eraberritzea da. **Euskadiko Liburutegien Bilgunearen** katalogo kolektiboaren web-orria eguneratu egin dugu, aplikazioaren funtzionalitateak hobetu, katalogoa bera aberastu eta, bereziki, hurrengo urteetarako eredia finkatu. Bizkaiko Foru Liburutegiaren katalogoa Bilgunean integratzea da horren adibide esanguratsua. Foru Liburutegiaren funtsa oparoa izateaz gain, integrazio hori era arautuan egin zelako, hitzarmena sinatu ondoren Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean eta bide hori jarraitu duelako 2023an Deustuko Unibertsitateak ere. Bilgunea euskal liburuzainen eta ikerlarien erreferentziazko tresna bilakatzea da aurrera begira dugun erronketako bat.

2023. urtean gauzatu arren, 2022an Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarean beste urrats garrantzitsu bat eman dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko den Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia Sarean integratuko baita. Ezaguna denez, liburutegi horretan erreforma sakonak egingo dira hurrengo urteetan eta hasieran integrazioa ez da erabatekoa izango, baina asko erraztuko du Gipuzkoako, bereziki, liburuzainen lana eta asko aberastuko du, orohar, euskal irakurleen eskura egongo den kultur-eskaintza. Sarearen aplikazioa, Absysnet bera ere, hobetzen ari gara, nahiz eta oraindik ezin esan noiz egongo den zuon eskura.

Badira iaz bultzatutako beste bi ekimen. Batetik, indar berria hartuko duena hurrengo urteetan, Nazio Batuen Erakundeak bultzatuko Garapen Jasangarrien Helburuen 2030 Agendaren inguruan liburutegiekin batera sortutako lan-taldea eta ekimenak. Bestetik, ez nuke aipatu gabe utzi nahi hainbat liburutegik egindako ahalegina Ukrainako gerratik ihesi etorri ziren errefuxiatuei haien hizkuntzetan liburuak eskura jartzeko.

Dena, ordea, ez da baikorra izan 2022an. Aurreko boletinean eLiburutegian egin beharreko eraldaketak iragarri genituen, baina uste eta nahi baino askoz ere beranduago gauzatu dira. Are gehiago, hasierako hilabeteetan akats eta hutsune ugari izan ditu eta asko ari zaigu kostatzen lehengora ekartzea. Eraldaketa hori garrantzitsua da guretzat, beste arlo batzuetan emandako hobekuntzez gain, web-orri berriak aukera eman digulako euskarazko audio-liburuak entzuteko. Gaur gaurkoz, gutxi dira, oraindik, bertan dauden izenburuak, baina pentsatzen dugu kopuru hori pixkanaka handitzen joango dela.

# EDITORIALA

Urtero legez, boletin honen segidan dituzue 2022ko datu estatistiko xehetuak. Nik gutxi batzuk baino ez ditut ekarriko sarrera honetara, zenbaki gehiegi eman gabe, eta titular bat gehituko dut: sarea ia-ia itzuli da pandemia aurreko normaltasunera. Liburu erosketak ia berreskuratu du 2019ko erritmoa, 238.708 izenburu berri sartu direlako euskal liburutegietan (244.538 duela lau urte), 39.300 erabiltzaile berri erakarri genituen 2022an (41.038, 2019an) eta 210.874 erabiltzaile aktibo izan genituen (238.344, 2019an). Maileguak guztira 2.536.461 izan dira (2.744.226 2019an). Datuak esanguratsuak dira, eta gure ustez baita baikorrak ere. Izan ere, gogoan izan behar dugu egunak dauzkan orduak dauzkala, eta irakurleak (edo entzuleak) eguneroko zereginei ez ezik, pandemia ondorengo eskaintza digitalaren olatuari ere aurre egin behar diola. Egia da, halaber, 2019ra arte izandako hazkundera moteldu egin dela eta guztion ardura izan behar dela horri buelta ematea. Bestetik, badira bi datu, ez bairik gabe baikorrak eta oso adierazgarriak. Alde batetik 2022an eLiburutegiak 126.849 mailegu izan zituen (68.891 2019an) eta, bestetik, liburutegien arteko maileguak bizi izan duen leherketa: 300.664 liburu eraman genituen liburutegi batetik bestera (120.300, 2019an). Sarea geroz eta gehiago da sarea eta, hortaz, liburutegien tresna garrantzitsua.

Orotara, gure aburuz ez da balantze txarra 2022. urterako, baina badira hainbat puntu hausnartzeko eta bide berrien abiapuntu bilakatzeko. Sareari dagokionez, katalogo bateratua izan da gure lehentasuna hasieratik eta katalogoa handitzea gure erronka. Sartuko dira, beharbada, liburutegi berriak sarean, baina helburu hori asetze puntura heltzen ari da. Sarearen egituraketak, aldiz, badauka zer hobetu. 2007ko Euskadiko Liburutegien Legeak bide bat markatu zuen liburutegien

integraziorako eta berori jarraitu dugu. Alabaina, ez diogu hainbeste ahalegin eskaini liburutegien arteko elkarlanari, katalogoen arloan, autoritateen eremuan edota laguntzen-deialdien ezaugarriak finkatzeko orduan. Liburutegien Aholku Batzordearekin batera ahalegin berezia eskaini nahi diegu esparru horiei.

Irakurzaletasuna da landu beharreko bigarren esparrua. Pandemiaren eraginak baloratzeko agian goizegi da oraindik, baina badirudi bi errealitate paralelo sortu direla. Alde batetik, badago biztanleriaren multzo txiki bat, gure bazkideen % 10etik beherakoa, liburu asko edo dezente irakurtzen duena eta, bestetik, libururik ia inoiz irakurtzen ez dutenek osatutakoa. Badugu, beraz, zer hobetu. 2022an liburutegiak eta irakurzaletasunaren inguruko hausnarketarekin jarraitu dugu eta berriaz antolatutako lehen ekintzak hasi dira gauzatzen, baina hurrengo urteetan bide hori indartu beharrean gaude.

Liburutegiak eurak dira aztertu beharreko hirugarren eremua. "Herriaren jauregi" deitu ditu Eric Klinenbergek liburutegiak, guztientzako irekita daudelako, gizarte sareak sortzen dituztelako eta desberdintasun sozialak leuntzen laguntzen dutelako. Liburutegien eta liburuzainen, funtsezko zereginak informazioa kudeatzea eta herritarren eskura jartzea dira, baina hainbeste informazio dagoen garaian okerra litzateke bestelako funtzio horiek alde batera uztea. Errealitate horiek liburuzainen prestaketa eta egitekoak eraldatzen ari dira, baita liburutegiena ere, espazioen antolaketa barne.

Euskal erakundeek ahalegin handia egin zuten 1980ko hamarkadan kultura azpiegiturak, fisikoak eta pertsonalak, sortzen eta hornitzen. Berrogei urte pasatu ondoren guztion artean hausnartu beharko dugu

egitura horiek baliagarriak diren egiteko berrietarako eta, beharrezkoa baldin bada, nola egokitu XXI. mendeko premietara eta zereginetara. Ez da lan makala izango.

*Mikel Aizpuru Murua*

**Kultura Ondareko zuzendaria**



# “liburuak bizitzarekiko mediazio hutsa dira”

Liburuetan bidaide:

Lehenengo aldiz aukera daukat leiho honetara agertzeko. Burua lanean, pentsatu dut momentuz egin dezakedan ekarpenik zintzoena liburutegiekin bizitzan zehar izan ditudan bizipenak hona ekartzea litzatekeela. Onar iezadazue, hortaz, zertzelada pertsonal batzuk ematea.

Oroimena traidorea da, jakina, baina beste baliabiderik ezean eta horri tiraka, hona nire lehenengo akordua liburutegien munduan. Madrilgo Decroly eskolako da aurreneko bizipen hori. Eskola-liburutegia izanik eta 70eko hamarkadan gaudela kontuan hartuta, pentsa daitekeen bezala, ez zen oso joria, ez funtsaren aldetik ezta instalazioei erreparatuta ere. Alabaina, nire lehenengo aldia izan zen eta oroimenean geratzeko indarra izan zuen bada. Ez dakit zenbat urte izango nituen, baina bai gogoan iltzatu maileguan hartu nuen lehenengo liburua: *Las aventuras de Huckleberry Finn*. Garai hartakoa ere *Los muchachos de la calle Pal*, Ferenc Molnarren istorio gogoangarria. Liburu hark erakutsi zidan, zalantzarik gabe, mila eskola ordu baino gehiago. Harrezkero adiskidetasunaz, konpromisoaz, fideltasunaz dakidan apurrak hor du iturri. Balio dezala aurreko aipuak goratzeko eta estimatzeko eskoletako liburutegiak, askotan bigarren mailakotzat jotakoak, baina gazte eta berde ginenean liburuen mundura sarbide izan zirenak. Hor hasi zen liburuz liburu eta liburutegiz liburutegi jositako bizitza bat.

Urteak pasatuko ziren, eta *tejuelo* hitza gure hiztegian oraindik ez bazegoen ere, hasi ginen ohartzen liburuak abezedarioarekin lotzen zirela. Orduan jabetu ginen apaletan Rulforen bidaide Sabato zela, eta geroago Atxagak Axularren gerizan bazkatzen zuela.

Hezkuntza sistemaren bigarren mugarria ere datorkit burura: unibertsitateko liburutegiak. Nire kasuan Madrilgo Complutenseko Albaitaritzaren Fakultatekoa.

Akorduan ere ditut, sorpresa, kuartel militarretako liburutegiak. Liburutegiek mirariak obratzen dituztelako seinale. Gazteren batek irakurtzen baditu lerro hauek, ziurrenik eta zorionez, ez du jakingo zer zen zerbitzu militarra. Bada, trantze horretan ere, Cartagenan eta El Ferrolen, babesa, sostengu eta lur ezaguna eskaini zidaten hango liburutegiek. Eta ez nintzen apal haien artean bero pixka bat bilatzen zuen bakarra. Zorionez orain arte ez zait egokitu beste liburutegi berezitxorik ezagutzea, hala nola presondegietakoak edota ospitaletakoak. Egon badaude eta zerbitzu itzela ematen dute holakoek, hortaz, merezi dute errekonozimendua, egokiera latzetan kontsolamendua emateko beti prest baitaude.

Tarte hori gaindituta, ezagutu nuen hurrengo liburutegia Burgosko UNEDena izan zen, filosofia ikasketekin tematu nintzenean. Bizitzaren beste bihurtune batean aukera diferente bat eskaintzen duten liburutegiak dira horiek ere.

Eta bidaia luze horretan, tartean eta tarteka, ezin ahaztu udal liburutegiak, bitxi artean ziurrenik gure bitxi gorenak. Zinez estimatuak. Hor harilkatu ziren Irungoa, Leioakoa, Sestaokoa, Bermeokoa, Dulantzikoa eta Gasteizko liburutegiak. Horiek guztiak geratu zaizkit gogoan betiko. Udal liburutegiak eta, horiekin batera, foru aldundietakoak izango dira herritarrei hurbilen zaizkienak eta haien eguneroko bizitzan tartekatzen direnak.



Carlos Blanco Aguinaga udal Liburutegia (Irun)

# AURKEZ PENNA

Bada hauexek dira erabiltzaile gisa liburutegietan bizi izan ditudan mugarrak. Orain liburutegien ekosistema talaia berri batetik mirestea dagokit. Aurreko urteotan Kulturaren Euskal Behatokitik erreparatzen nion liburuen munduari, hainbat ikerketa medio aztertuz sormena, edizioa, distribuzioa, irakurzaletasuna, finantzaketa... Gonbita egiten dizuet Behatokiko dokumentazioa arakatzera, datuz eta hausnarketaz beterik dator eta. Hemendik aurrera nire jarduna nirekin dudan lantalde bikaina kudeatzea izango da, eta haien eskutik hainbat erronkari eustea, esaterako, ELPS bultzatzea eta osatzea, eLiburutegia indartzea, Bilgunea aberastea eta irakurzaletasunaren grina nonahi piztea. Bide horretan Euskadiko liburutegien partaide zareten zuekin guztiekin batera, jakina!

Liburuek eta liburutegiek jota gaudenok badakigu Rafael Vargas-Hidalgok esandakoa egia borobila dela: "Liburutegiak eta artxiboak, itxuraz, leku geldoak dira, baina maiz bisitatzan dutenek badakite bizitzaz beteta daudela, hor gordetzen baita belaunaldi askoren giza testigantza". Hor dago gordeta milaka gizon eta emakumeren fantasia, adimena, sormena eta tragedia. Humanismoan sinesten dutenentzat leku preziatuak dira. Izan ere, liburuak bizitzarekiko mediazio hutsa dira: bizitzeko irakurtzen dugu, beteago bizitzeko. Gaur egun lehen lerroan behar dugun humanismoak liburutegiak behar ditu, liburutegian du hazia.

Ezin buka aurkezpentxo hau Francisca Pulgar aipatu gabe. Lan eskerga harena azken hamarkadetan. Bere lekukoa hartzea egokitu zait, eta ez da erronka makala izango haren jardunbideari segida ematea, bera egon baita azken hamarkadetan orain goza dezakegun hainbat altxorren egituraketan. Zinez eskertzekoa.

Eginkizun eder honen ahaleginean topatuko nauzue, nola ez!, eta zuek sobera erakutsitako konpromiso eta konplizitatearekin Euskadiko Liburutegi Sistemaren etengabeko hobekuntzan gure aletxoak jarriko dugulakoan ziur nago.


Hala izan dadila!

Mila esker, liburu-bidaide guztioi.

*Mikel Etxebarria Agirresarobe*  
**Liburutegi Zerbitzuko arduraduna**




# ESTADÍSTIKAK



eLiburutegia

# eLiburutegiko maileguak 2022an

Aurtengo datuak baikor eta esanguratsuak dira, eLiburutegiak 126.849 mailegu izan baititu (68.891 2019an).




126.849



# Maileguak - hilabeteka (bilakaera 2016-2022)



*Pandemiaren trakzio-efektuari esker, irakurle digital berriak erakarri baitzuten, maileguen kopurua konfnamenduaren aurreko urteetatik gorako joera mantendu da.*







# Urteko maileguak (bilakaera 2015-2022)

2022ko Espainiako Liburuak Irakurtzeko eta Erosteko Ohituren Barometroaren arabera, denbora falta da liburuak ez irakurtzeko arrazoi nagusia, eta horren atzetik daude aisialdiko beste jarduera batzuk edo interes falta.


Azken hamarkadan, irakurketarekin lehiatzen diren entretenimendu-aukeren eskaintza handitu egin da.




# Maileguak udalerrika




# Maileguak 1.000 biztanleko



# Maileguak 1.000 biztanleko (5.000 biztanletik gorako udalerrietan)




# Maileguak 1.000 biztanleko (10.000 biztanletik gorako udalerrietan)




# Erabiltzaile berriak (bilakaera 2016-2022)

Urtean zehar eLiburutegiaren erabiltzaile berriak sartzea antzekoa da hilero, oporraldietan eta ikasturtearen hasieran gorakada txiki batekin.




# eLiburutegiaren erabiltzaileak

*Grafiko horrek eLiburutegiko bazkide berrien datu metatua adierazten du, eta pandemiaren ondorengo urteetan hazkunde moderatua ikusten da, erritmo motelagoan bada ere.*



# Liburuak eLiburutegian

*Titulu berrien eskaintza zabala da eLiburutegiaren oinarria.*





# Mailegatuenak



**EL LIBRO NEGRO DE LAS HORAS**  
Eva García Sáenz de Urturi



1.053



**LA BESTIA**  
Carmen Mola



1.005



**SIRA**  
María Dueñas




694



**ÚLTIMOS DÍAS EN BERLÍN**  
Paloma Sánchez-Garnika



574



**LO QUE LA MAREA ESCONDE**  
María Oruña



555



**EN PLENA NOCHE**  
Mikel Santiago




536



**AQUITANIA**  
Eva García Sáenz de Urturi




476



**LAS MADRES (LA NOVIA GITANA 4)**  
Carmen Mola



473



**INDEPENDENCIA**  
Javier Cercas



456




**EL MENTIROSO**  
Mikel Santiago




418



**MIÑAN**  
Amets Arzallus eta Ibrahima Balde




395



**EL CASO ALASKA SANDERS**  
Joël Dicker



383



# Mailegatuena euskaraz



**MIÑAN**  
Amets Arzallus eta  
Ibrahima Balde



395



**ERAIKUNTZARAKO  
MATERIALA**  
Eider Rodríguez



211



**IZURDEEN  
AURREKO BIZITZA**  
Kirmen Uribe



201



**AITAREN ETXEA**  
KARMELE JAIIO



179



**Ezekiel**  
Jasone Osoro



132



**MAREN**  
Alaine Aguirre



130



**AMAREN  
ESKUAK**  
KARMELE JAIIO



119



**33 ezkil**  
MIREN GORROTXATEGI



116



**DENDAOSTEKOAK**  
UXUE ALBERDI



115



**FAITH**  
Lander Garro



113



**Arantzaren  
eskuak**  
ALBERTO LADRON ARANA



111



**KARENA**  
Alaine Aguirre



107

IRAIKUR


KE  
TA

PUBLI  
KOKO!

SA  
REA



# Sarea zifratan



Atal honetan ekitaldi bakoitzeko daturik esanguratsuenak biltzen ditugu, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren errendimendu-adierazleak erakusteko, kasu honetan, 2022koak.

Aurreko urteekin alderatuta, pandemiaren eragina gutxituz joan da, eta pixkanaka aurreko urteetara itzultzen ari da.

2022an 2.409.612 ale eraman ziren maileguan; 2021ean, berriz, 2.519.662.

39.300 pertsona izan ziren liburutegietako bazkide, eta aurreko urtean 27.550. Arrazoa irakurleen fitxategiaren araztea izan daiteke. Lan horren bidez automatikoki ezabatu ziren azken 10 urteetan liburutegia erabili

ez zuten bazkideak. Zeregin horren ondoren, 20.000 erregistro bikoiztuak ezabatu ziren eskuz. Guztira, 935.360 pertsonak dute EIPSren erabiltzaile-txartela. Mailegu-hartzaile aktiboak 210.874 izan ziren, eta aurreko urtean, berriz, 188.321.

Bestalde, liburutegien arteko maileguari dagokionez (LAM), urtez urte gora egiten ari da, 2022an 300.664 eskaera egin ziren, 2021ean baino 19.950 gehiago, eta horrek erakusten du zerbitzu hori Sarearen erabiltzaileek gehien estimatzen dutenetako bat dela.


Sareko liburutegien funts bibliografikoa 29.876 titulu berrirekin aberastu da, 232.708 ale sartu dira katalogoan. Horren ondorioz,

Sarearen katalogoak eskaintzen dituen tituluak 1.452.381 dira.

Sarearen iraunkortasunaren erakusgarri dira katalogatu gabe alta ematen zaien aleen kopurua eta liburutegien arteko mailegu-zerbitzua.

Eta, azkenik, 3.006.334 bilaketa egin dira OPACen, aurreko urteetan baino gutxiago, agian liburutegietara egindako bisitak berreskuratu direlako edo Liburubilako bilaketak ugaritu direlako.


# Mailegatuena... (helduak)



# Mailegatuena... (haurrak)



# Mailegatuena... (helduak)



# Mailegatuena... (haurrak)



# LIBURU TEGIAK



# Irakurzaletasuna sustatzeko tailerra

## Irakurketa nerabezaroan: harreman arriskutsua

2022ko azaroaren 30ean, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburategietako profesionalei zein irakurzaletasuna sustatzeko jardueretan interesa zuen pertsona orori zuzendutako tailerra egin zen Bilbon, Euskadiko Artxibo Historikoan. Tailer horren helburua, 2023. urterako, 12 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekintzen gainean eztabaidatzea eta adostea izan zen.

Tailerra Andoni Iturbek, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak, ireki zuen eta, ondoren, Mikel Aizpuruk, Gemma Lluchek, irakasle eta ikertzaileak, Lluís Vicente, María de Vallibana, Asun Agirianok, Arrasateko liburategiko arduradunak eta Arantzazu Ibarondok, Oñatiko liburategiko arduradunak, parte hartu zuten.

Ekitaldia oso arrakastatsua izan zen, eta askok Asun eta Arantza liburuzainen aurkezpena eskatu diguzuenez, hemen ipini dugu guztiok irakur dezazuen.

*Asun Agiriano  
Arantzazu Ibarondo*



*Egin klik irudiaren gainean aurkezpena deskargatzeko*



# 2022an egin dugu...



## Euskadiko Liburutegi Sistemaren liburutegien katalogo kolektiboak, Bilguneak, bere irudia eguneratu eta diseinua hobetu du

Bilgunea funtsezko tresna da, Euskadiko Liburutegi Sistema osatzen duten liburutegietako ia 9 milioi erregistro bibliografiko azkar eta erraz eskuratzeko eta kontsultatzeko aukera ematen duena. Hori dela eta, oso tresna erabilgarria da ikasleentzat, ikertzaileentzat eta Euskadin kultura eta ezagutza eskuratzeko interesa duen edonorentzat.

Bilgunearen diseinu eguneratua Absys-en 2.3.1 bertsioaren funtzionaltasunak aprobetxatuz sortu da, eta bereziki katalogo kolektiboetarako pentsatutako elementu berriak biltzen ditu.

Ezaugarri berri horien artean daude proiektuan parte hartzen duten erakundeen erregistro bat, estatistika eguneratuak eta tituluak aurkitzeko mapa interaktibo bat.

AbsysNet eguneratuta, Bilguneak tresna intuitiboagoa eta eraginkorragoa eskaintzen du, erabiltzaileek euskal liburutegietako baliabideak azkarrago eta errazago eskura ditzaten eta material bibliografikoak errazago aurki ditzaten. Horrela, Euskal Herriko liburutegietako baliabideak erraz eta eraginkortasunez eskuratzeko funtsezko tresna da Bilgunea.



# bilgunea

*Aurreko logotipoa oinarritzat hartuta, bi irakurketa-orratz irudikatzen dituen marka bat garatu da, disko gogor batetik informazioa aterez, eta, tipografiari dagokionez, Liburubila edo Aubi markekin parekatu da.*

# 2022an egin dugu...



## Next Generation

COVID-19 pandemiak Europako herrialdeen ekonomian dituen ondorio negatiboak arintzeko, 2022an Europako Batzordeak Next Generation programa aurkeztu zuen, 750 milioi eurokoa eta hurrengo bi urteetan estatu komunitarioen artean banatuko dira, transferentzia zuzenen eta maileguen bidez. Suspertze eta Erresilientzia Plana (MRR) Next Generation Euren elementu nagusia da, eta 672,5 milioi euro ditu mailegutan eta dirulaguntzetan, estatu kideek hasitako erreformak eta inbertsioak babesteko.

Proiektu horren barruan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak 575.460,75 euro jaso ditu Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan banatzeko. Helburua da paperezko formatuko liburuak eros ditzaten. Hori ahalbidetzeko, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburuaren 2022ko irailaren 28ko Aginduaren bidez (2022ko urriaren 14ko EHAA, 197 zk.) xede horretarako dirulaguntzetarako deialdia egin zen.

134 udalek eskatu zuten laguntza hori beraien liburutegietarako, eta honela banatu ziren funtsak:

1.500 € EIPsko liburutegi bakoitzerako eta soberako kopuruarekin beste banaketa bat egin zen biztanle kopuruaren arabera. Laguntza hori, ohi ez bezala, gastua justifikatu aurretik ordaindu zen.

Azkenik, Next funtsak jaso dituzten udalak 132 eta 202 izan dira liburutegiak; izan ere, udal batzuek liburutegi nagusia eta sukurtsal bat edo gehiago dituzte auzoetan banatuta.

Horrek 541.288,75 euroko gastua ekarri du, eta funts bibliografikoak 36.126 liburutan handitu dira guztira. Liburu horietatik 33.233

dagoeneko katalogo kolektiboan sartuta daude, eta erabiltzaileen eskura. Laguntza hori onartzean, liburutegiek konpromisoa hartzen dute Next funtsekin erositako liburuak katalogatuta edukitzeko 2023ko abenduaren 31rako, baina 5.000 biztanletik beherako udalerrietako liburutegien kasuan, Saileko Liburutegi Zerbitzua arduratzen da liburu horiek katalogatzeaz.

Dena den, zortzi udalek berariaz adierazi dute uko egiten diotela dirulaguntza horri, ez dutelako baliabide ez materialik ezta giza baliabiderik liburuak hautatu, erosi eta gastua justifikatzeak dakarren lanari aurre egiteko. Beste hiru udalek ez dute egindako gastua justifikatu, baina maiatzaren 30era arteko epea dute oraindik. Uko egin dutenek eta gastua justifikatzen ez dutenek jasotako diru kopurua itzuli beharko dute.

Justifikazioari dagokionez, azpimarratu behar da liburu-funtsak berriitu edo/eta handitzeko dirulaguntzetan ohikoa den justifikatzeko moduz gain, kasu honetan datu batzuk sartu behar direla Espainiako Gobernu Kultura eta Kirol Ministerioaren aplikazio batean. Aplikazio horrek COFFEE izena du, eta udaletako idazkariak arduratzen dira datuak egiaztatzeaz eta sinatzeaz, nahiz eta datuak sartzeko udaleko beste langile baten esku utz dezaketen. Horrek lan erantsia dakar eta udal guztiek ez daude lan horri aurre egiteko moduan.

Zailtasun horiek guztiak ikusita, Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak pertsona bat kontratatu du aplikazio hori kudeatzeko, laguntza teknikoa emateko eta behar duten udalei datuak sartzeko laguntzeko.

Dirulaguntza horren onuradun diren liburutegiek beste betebeharrak ere badute: dagozkien logotipoak duen kartel bat jarri behar dute liburutegian, leku ikusgarri batean. Liburutegi Zerbitzutik kartel bat bidali diegu, eta, bertan, jaso duten diru kopurua eta erositako liburuen kopurua gehitu behar izan dute.



# BERRIAK

# 2023an ari gara...

## Koldo Mitxelena

Koldo Mitxelena Kulturunea liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratzeko hitzarmena Gobernu Kontseiluan onartu egin da 2023ko maiatzean. Eusko Jauriaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmen honi esker 6,5 milioi liburu eta 962.000 bazkide izango ditu gure denon sareak.

Horrelako egitasmo bat, dakizuenez, ez da batere erraza, baina jende askoren borondate eta lana tarteko azkenean gauzatu egingo da egitasmo hau.



## Absysnet-en bertsioa aldatzea

Absysnet 2.3 bertsio berria ezartzeko lanean ari gara, nahiz eta oraindik ez dugun datarik ezarrita, 2023aren amaieran ezin bada 2024aren hasieran izatea espero dugu.

Baratzek kontaktzen digun bezala, AbsysNet 2.3k SIGBren bilakaera eta iraultza aurkezten du.

Hurrengo bertsioaren hobekuntzen artean, nabarmentzekoak dira ENS segurtasun-politika, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta moduluen erabilgarritasuna eta aldakortasuna.

Era berean, nabarmendu dute responsive design teknologiak gailu multigailu bihurtzen duela AbsysNet-en mOpac 2.3, mugikorretatik, tablete-tatik edo pantaila konbentzionaletatik liburutegien online katalogorako erabat eskuragarri dagoen interfaze bakarra erabiltzean esperientzia hobetuta.

## Irakurketa Plana

Irakurketa Plana gazteei zuzenduta egongo da. Horretarako, euren interesak eta kezak erdigunean jarriko ditugu eta liburutegietan hainbat ekitaldi, jarduera eta tailer egingo dira.



BURRU  
BIDEAK

# Bizitza soziala

2022an hainbat lankidek erretiroa hartu dute. Zehazki, Liburutegi Zerbitzuan Francisca Pulgar (zerbitzu Burua) eta Mikel Arenaza erretiratu dira. Gainera, Hernaniko liburutegitik hitz polit hauek bidali dizkigute erretiroa hartu duten lankideei buruz.

Bizitzaren etapa berri hori hasten duten guztiei gure desiorik onenak bidaltzen dizkiegu.



*Hernaniko lankideen partez:*

*Eskerrik asko bioi Hernanin egindako lan guztiagatik, hartu orain ongi merezitako atsedendia.*

## Raquel

Hernaniko Udal Liburutegia

*Bibliotekaria letra larriz, liburutegia izan du ofizio, eta baita afizio ere. Goxoa, langilea eta fina, liburutegiak gizartearekin batera alda zitezen lanean nekaezin aritu da.*



## Pili

Hernaniko Udal Liburutegia

*Haur txikien irakaslea, ustekabean liburuzain bihurtua, urte luzez liburutegia norbere etxea bezain ongi zaindu duena.*

© 2023  
Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak argitaratua.  
Posta elektronikoa [liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus)  
**LG: SS 1509-2005**

